

<p>1012021060101 Zein modalitate eskaintzen ditu Udalak nire <u>aldizkako zergak</u> eta diru-sarrerak ordaintzeko?</p>	<p>1012021060101 ¿Qué modalidades me ofrece el Ayuntamiento para el pago de mis <u>tributos periódicos</u> e ingresos?</p>
<p>1. Helbideratu gabeko ordainketa:</p> <p>Getxoko Udalak zergadunen etxeetara ordainketa-gutuna izeneko kobrantza agiria bidaltzen du. Agiri horretan, zergadunak identifikatzeko datuak (izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea), ordaindu beharreko kontzeptua identifikatzeko datuak (zenbaki finkoa eta higiezin helbidea, ibilgailuen matrikula zenbakia eta deskribapena, obren identifikazioa, pasabide zenbakiaren identifikazioa, eta abar) jasotzen dira, baita errekarju edo interesik gabe ordainketa modu boluntarioan egiteko azken eguna ere.</p> <p>Horrez gain, agiri horietan jasotzen da ordainagiria ordaintzeko digituen sekuentzia ere. Datu horiek hauek dira: BIDALTZAILEA, ERREFERENTZIA, IDENTIFIKATZAILEA ETA ZENBATEKOA.</p> <p>Agiri horrekin, zergadunek ordainketak modu honetan egin ahal izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> Diru-bilketarako finantza erakunde laguntzaileetara joanez; finantza-erakunde horiek ordainketa gutunaren atzeko aldean daude jasota. Telematikoki, zergadunak irekitako bankuko kontua duen finantza-erakundearen ordainagiriak ordaintzeko aukeraren bitartez. Telematikoki, Eusko Jaurlaritzako Ordainketa Pasabidearen bidez, www.getxo.eus/ webguneko Nire Ordainketak ataleko estekaren bidez edo www.euskadi.eus/mipago webgunearen bidez. <p>2. Helbideratze arrunta:</p> <p>Getxoko Udalak zure kontu zenbakian zuzenean ordainagiriak epe bakarrean kobratzea nahi baduzu, Sarrera Erregistroan <i>Aldizkako Zergak Helbideratzeko</i> eredu normalizatua aurkeztu beharko duzu, zuzen beteta eta bertan agertzen den dokumentazioarekin batera. <u>Helbideratze arrunta</u> aukera markatuta, Getxoko Udalak zuk adierazitako kontuan kobratuko dizkizu ordainagiriak, <u>epe bakarrean eta errekarju eta interesik gabe</u>.</p> <p>Kontuan kobratzea egingo den egun zehatza urtero argitaratzen da Zergadunen Egutegi Fiskalean. Kontsultatu informazio hori webgunean.</p> <p>3. Nahierako ordainketa helbideratzea:</p> <p>Getxoko Udalak zure kontu zenbakian zuzenean ordainagiriak zatikatuta kobratzea nahi baduzu, Sarrera Erregistroan <i>Aldizkako Zergak Helbideratzeko</i> eredu normalizatua aurkeztu beharko duzu, zuzen beteta eta bertan agertzen den dokumentazioarekin batera. <u>Nahierako ordainketa 2 alditan edo nahierako ordainketa 4 alditan</u> aukera markatu ondoren, Getxoko Udalak zuk adierazitako kontuan kobratuko dizkizu ordainagiriak, <u>zatatuta eta aukeratutako epeetan, errekarju eta interesik gabe</u>.</p> <p>Kontuan kobratzeak egingo diren egun zehatzak urtero argitaratzen dira Zergadunen Egutegi Fiskalean. Kontsultatu informazio hori webgunean.</p>	<p>1. Pago no domiciliado:</p> <p>El Ayuntamiento de Getxo remite al domicilio del contribuyente un documento cobratorio denominado Carta de Pago. En dicho documento figuran los datos necesarios para identificar al contribuyente (Nombre, Apellidos, DNI, Dirección), los datos necesarios para identificar el concepto por el que se está obligado a pagar (Nº Fijo y dirección de los inmuebles, matrícula y descripción de los vehículos, identificación de las obras, identificación del nº de vado, etc.), así como la fecha límite para proceder al pago en periodo voluntario sin recargo e intereses.</p> <p>También se incorporan en dichos documentos una secuencia de dígitos que le permitirán abonar el recibo. Estos datos son EMISOR; REFERENCIA, IDENTIFICADOR E IMPORTE.</p> <p>Con dicho documento, el contribuyente podrá proceder al pago de las siguientes formas:</p> <ul style="list-style-type: none"> Personándose de forma presencial en alguna de las entidades financieras colaboradoras para la recaudación que figuran en el reverso de la Carta de Pago. De forma telemática a través de la opción pago de recibos de la página web de la entidad financiera en la que el contribuyente disponga de una cuenta bancaria abierta. De forma telemática a través de la Pasarela de Pagos del Gobierno Vasco a la que se accede bien a través de www.getxo.eus/ MI Pago ó bien a través de www.euskadi.eus/mipago <p>2. Domiciliación Ordinaria:</p> <p>Si usted desea que el Ayuntamiento de Getxo le cargue directamente en su cuenta el importe de sus recibos en un único plazo deberá presentar por Registro de Entrada el modelo normalizado existente al efecto <i>Domiciliación de Tributos Periódicos</i> debidamente cumplimentado y con la documentación en él requerida. Marcando la <u>opción Domiciliación Ordinaria</u>, el Ayuntamiento de Getxo procederá a cargarle en la cuenta que usted indique el importe de sus recibos <u>en un único plazo, sin recargos ni intereses</u>.</p> <p>La fecha exacta en la que se procederá al cargo en cuenta se publica cada año en el Calendario Fiscal del Contribuyente. Consulte esta información en la página web.</p> <p>3. Domiciliación Pago a la Carta:</p> <p>Si usted desea que el Ayuntamiento de Getxo le cargue directamente en su cuenta el importe de sus recibos de forma fraccionada deberá presentar por Registro de Entrada el modelo normalizado existente al efecto <i>Domiciliación de Tributos Periódicos</i> debidamente cumplimentado y con la documentación en él requerida. Marcando la opción <u>Pago a la Carta 2 plazos ó Pago a la Carta 4 plazos</u>, el Ayuntamiento de Getxo procederá a cargarle en la cuenta que usted indique el importe de sus recibos de <u>forma fraccionada en los plazos escogidos, sin recargos ni intereses</u>.</p> <p>La fecha exacta en la que se procederá al cargo en cuenta de cada uno de los plazos se publica cada año en el Calendario Fiscal del Contribuyente. Consulte esta información en la página web.</p>
<p>1012020060502 Zein modalitate eskaintzen ditu Udalak nire <u>aldizkakoak ez diren zergak</u> eta diru-sarrerak ordaintzeko?</p>	<p>1012020060502 ¿Qué modalidades me ofrece el Ayuntamiento para el pago de mis <u>tributos no periódicos</u> e ingresos?</p>
<p>1. Helbideratu gabeko ordainketa:</p> <p>Getxoko Udalak, zergadunen etxeetara ordainketa-gutuna izeneko kobrantza agiria bidaltzen du. Agiri horretan, zergadunak identifikatzeko datuak (izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea), ordaindu beharreko kontzeptua identifikatzeko datuak (zenbaki finkoa eta higiezin helbidea, ibilgailuen matrikula zenbakia eta deskribapena, obren identifikazioa, pasabide zenbakiaren identifikazioa, eta abar) jasotzen dira, baita errekarju edo interesik gabe ordainketa modu boluntarioan egiteko azken eguna ere.</p> <p>Horrez gain, agiri horietan jasotzen da ordainagiria ordaintzeko digituen sekuentzia ere. Datu horiek hauek dira: BIDALTZAILEA, ERREFERENTZIA, IDENTIFIKATZAILEA ETA ZENBATEKOA.</p>	<p>1. Pago no domiciliado:</p> <p>El Ayuntamiento de Getxo remite al domicilio del contribuyente un documento cobratorio denominado Carta de Pago. En dicho documento figuran los datos necesarios para identificar al contribuyente (Nombre, Apellidos, DNI, Dirección), los datos necesarios para identificar el concepto por el que se está obligado a pagar (Nº Fijo y dirección de los inmuebles, matrícula y descripción de los vehículos, identificación de las obras, identificación del nº de vado, etc.), así como la fecha límite para proceder al pago en periodo voluntario sin recargo e intereses.</p> <p>También se incorporan en dichos documentos una secuencia de dígitos que le permitirán abonar el recibo. Estos datos son EMISOR; REFERENCIA, IDENTIFICADOR E IMPORTE.</p>

Kontrol Kodea
Código de Control

GEF-REC-DOM-02-DN.509 //

<p>1012020060503 Nire aldizkako zergak modu helbideratuan ordaintzea aukeratu dezaket edozein urtetan?</p>	<p>1012020060503 ¿Puedo escoger pagar de forma domiciliada mis <u>tributos periódicos</u> en cualquier año?</p>
<p>Bai, erroldan alta eman den urtean izan ezik.</p> <p>Zerga-objektu bat erroldan altan eman den urtean, ordainketa ezin izango da helbideratze arruntaren modalitatean ezta nahierako ordainketa modalitatean egin. Zergadunak, alta likidazioaren zenbatekoa helbideratu gabeko modalitatean ordaindu beharko du, ordainketa-gutun baten bidez. Gutun hori etxera bidaliko zaio, eta hortik aurrera, helbideratzea eskatu ahal izango du, hurrengo zergalditik aurrera ondorioak izango dituelarik.</p>	<p>Sí, salvo el año correspondiente al alta en el padrón.</p> <p>El primer año en el que un determinado objeto tributaria causa alta en un padrón no podrá ser domiciliado ni en la modalidad de Domiciliación Ordinaria, ni en la modalidad de Pago a la Carta. El contribuyente deberá abonar el importe de la citada liquidación de alta bajo la modalidad de Pago no Domiciliado mediante la Carta de Pago que le será remitida a su domicilio y a partir de ese momento, solicitar la domiciliación que tendrá efecto a partir del período impositivo siguiente.</p>
<p>1012020060504 Aldizkako ordainagiriak etxean jakinaraziko dizkidazue ordaindu ahal izateko?</p>	<p>1012020060504 ¿Me notificáis los recibos periódicos a mi domicilio para proceder al pago?</p>
<p>Aldizkako zergen ziurtagiriaren kasuan, Getxoko Udalak erroldetan altan emandako urteari dagozkion likidazioak baino ez ditu jakinarazi behar hartu-agiriarekin. Kasu horretan, ordainagiriak ordaintzeko betebeharra duenaren helbide fiskalera igorriko dira.</p> <p>Hurrengo urteetan, likidazioak ez zaizkio banaka zergadun bakoitzari jakinaraziko; aitzitik, modu kolektiboan jakinaraziko dira, BAOin iragarki bat argitaratuz. Hala, zergaren errolda onartu izana eta zergadunak zerga borondatezko aldian ordaintzeko datak ere jakinaraziko dira.</p> <p>Zergadunaren betebeharra errazteko, Getxoko Udalak ordainketa helbideratua hautatu ez dutenen helbide fiskalera ordainketa-gutunak izeneko dokumentuak igorriko ditu, horiei esker atxikitako finantza-erakundeetan ordaindu ahal izateko zerga.</p> <p>Jakinarazteko betebeharra BAOin iragarki bat argitaratuz bete denez, aipatutako ordainketa-gutunak ez jasotzeak ez du jakinarazpen-akatsik eragingo eta, horrenbestez, zergadunaren betebeharra izango da aipatutako dokumentua lortzea, Getxoko Udalaren Zerga alorreko Arreta Zerbitzuan, borondatezko aldian ordaindu ahal izateko zerga.</p>	<p>En el caso de recibos correspondientes a tributos periódicos, el Ayuntamiento de Getxo sólo tiene la obligación de notificar con acuse de recibo las liquidaciones correspondientes al año de alta en los padrones. En este supuesto los recibos serán remitidos a la dirección fiscal del obligado al pago.</p> <p>En los años sucesivos, la notificación de las liquidaciones no se realizará de forma individual a cada contribuyente sino de forma colectiva, mediante publicación de un anuncio en el BOB indicando la aprobación del padrón del impuesto y las fechas en las que el contribuyente deberá proceder su pago en período voluntario.</p> <p>Para facilitar esta obligación del contribuyente, el Ayuntamiento de Getxo remite al domicilio fiscal de aquellos que no hayan optado por el pago domiciliado, unos documentos denominados Cartas de Pago que le permitirán el abono del impuesto en las entidades financieras adheridas.</p> <p>Debido a que la obligación de notificar ha sido cumplida a través del anuncio en el BOB, la no recepción de las cartas de pago indicadas no supone un defecto de notificación y, por tanto, será obligación del contribuyente obtener el citado documento en el servicio de atención tributaria del Ayuntamiento de Getxo para proceder al pago del impuesto en período voluntario.</p>
<p>1012020060505 Likidazioak zein helbidetan jakinaraziko zaizkit, edo ordainketa gutunak nora igorriko zaizkit?</p>	<p>1012020060505 ¿A qué dirección se me notifican las liquidaciones o se me remiten las cartas de pago?</p>
<p>OHZren erroldan altari dagozkion likidazioak eta ondorengo ordainketa-gutunak helbide fiskalera igorriko dira.</p> <p>Helbide hori Getxoko Udalaren Zerga Alorreko Arreta Zerbitzuan kontsultatu daiteke. Helbidea aldatu nahi baduzu, <i>Zerga helbidearen aldaketa</i> izeneko agiria aurkeztu behar duzu Erregistro Nagusian, eskatutako dokumentazioarekin batera.</p>	<p>Las liquidaciones correspondientes al alta en el padrón del IBI y las sucesivas cartas de pago se remiten al domicilio fiscal.</p> <p>Puede consultar dicha dirección en el Servicio de Atención Tributaria del Ayuntamiento de Getxo. Si desea modificar dicha dirección deberá presentar en el Registro General Documento Normalizado denominado <i>Cambio de Dirección Tributaria</i>, junto con la documentación requerida.</p>
<p>1012020060506 Ez dut konturik finantza-erakunde batean. Zergak transferentzia bidez ordaindu ditzaket?</p>	<p>1012020060506 No tengo cuenta abierta en una entidad financiera ¿Puedo pagar mis tributos realizando una transferencia?</p>
<p>Ez, ez da posible.</p> <p>Zergak ordaintzeko modalitateak adierazitakoak baino ez dira.</p>	<p>No, no es posible.</p> <p>Las modalidades de pago de tributos son exclusivamente las indicadas.</p>
<p>1012020060507 Posible da senide baten ordainagiria nire kontu zenbakian helbideratzea?</p>	<p>1012020060507 ¿Es posible domiciliar el recibo de un familiar en mi número de cuenta?</p>
<p>Batzuetan bai eta beste batzuetan ez.</p> <p>Ordainagiriaren titularra, titularra, titularkidea edo pertsona baimendua izan behar da helbideratzearen kontu zenbakian. Bestela, ez da baimenik emango helbideratzea egiteko.</p>	<p>Depende.</p> <p>El titular del recibo debe ser titular, cotitular o autorizado en el número de cuenta aportado para la domiciliación. En caso contrario, no se admite la domiciliación.</p>

<p>1012020060508 Ordainagiri ezberdinak ordaintzeko, kontu zenbaki ezberdinak erabili ditzaket?</p>	<p>1012020060508 ¿Puedo aportar números de cuenta diferentes para pagar diferentes recibos?</p>
<p>Aukeratutako helbideratze-moduaren arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> Zergadunak helbideratze arrunta aukeratzuz gero, ordainagiri kopuru bezainbeste kontu zenbaki aurkez ditzake, edo guztientzako kontu zenbaki bera erabili dezake. Zergadunak nahierako ordainketa aukeratzuz gero, bere izenean nahierako ordainketa modalitate bakarra izan dezake altan emanda (2 edo 4 epetan); beraz, ordainketa-gutun horretako ordainagiri guztiak lotutako kontu zenbaki bakarra izango du. 	<p>Depende de la opción de domiciliación escogida.</p> <ul style="list-style-type: none"> Si el contribuyente opta por la opción Domiciliación ordinaria, puede aportar tantos nº de cuenta como recibos tenga, o aportar el mismo nº de cuenta para todos ellos. Si el contribuyente opta por la opción Pago a la Carta, sólo puede tener dado de alta a su nombre una única modalidad de Pago a la Carta (4, o 2 plazos) con un nº de cuenta asociado para todos los recibos que incluya en dicho Pago a la Carta.
<p>1012020060509 Nahierako ordainketa modalitateak betekizun gehiago ditu?</p>	<p>1012020060509 ¿Tiene alguna implicación más el escoger la modalidad de Pago a la Carta?</p>
<p>Bai, baditu.</p> <p>Teknikoki, helbideratze arruntaren aukera eta nahierako ordainketa bidezko helbideratzea ezberdinak dira. Helbideratze arruntan, jatorrizko ordainagiriak kobratzeko prozesua modu individualizatuan mantentzen da, eta nahierako ordainketan, jatorrizko ordainagiriak gehitutako zenbatekoan biltzen dira, eta zenbateko hori epe bitan edo lautan banatzen da, aukeratutako modalitatearen arabera.</p> <p>Hori garrantzitsua da zergadunak bere kontuan edo Udalak kobrantzaren berri emateko bidaltzen duen SMSan ikusten dituen kobrantzak identifikatu ahal izateko.</p> <ul style="list-style-type: none"> Helbideratze arrunta aukeratu baldin bada, kontuan hartuz teknikoki bakarrik jatorrizko ordainagiriak mantentzen direla, Getxoko Udalak egiten dituen karguetan, zergadunak zerga kontzeptu zehatza eta ordainagiri bakoitzaren zenbateko individualizatua ikusiko ditu (OHZ, TMIZ, TAO, eta abar). Alderantziz, zergadunak nahierako ordainketa helbideratzea aukeratu badu, kontuan hartuz teknikoki jatorrizko ordainagiri guztiak bakarrean biltzen direla, Getxoko Udalak egiten dituen karguetan, zergadunak bakarrik nahierako aukera (epe bitan edo lautan) eta zatikatze bakoitzaren zenbatekoa ikusiko ditu, baina ez dira agertuko ordainagiri bakoitzaren zerga kontzeptu zehatza eta zenbateko individualizatua. <p>Ordainagiri bakoitzaren informazio guztia biltzen duen ordainketa-ziurtagiria nahi izanez gero, Udalaren Diru-bilketa Zerbitzuan eskatu ahal izango da, ordainagiria ordaindu ondoren eta itzulketa egiteko legez ezarritako 58 eguneko epea igaro ondoren.</p>	<p>Si, si la tiene.</p> <p>Técnicamente la opción de domiciliación ordinaria y la opción de domiciliación mediante Pago a la Carta son diferentes. La opción de domiciliación ordinaria mantiene de forma individualizada en el proceso de cobro los recibos originales, mientras que la opción Pago a la Carta agrupa los recibos originales incluidos en uno único por el importe agregado y fracciona dicho importe total en 2 o 4 plazos según la modalidad escogida.</p> <p>Este hecho es importante a la hora de identificar los cargos que el contribuyente ve reflejados en su cuenta o en los SMS que remite el Ayuntamiento como aviso del cargo.</p> <ul style="list-style-type: none"> Si su opción es la domiciliación ordinaria, dado que técnicamente se mantienen los recibos originales, en los cargos que realice el Ayuntamiento de Getxo, el contribuyente verá reflejado el concepto tributario concreto y el importe individualizado de cada recibo (IBI, IVTM, OTA, etc...). Si por el contrario su opción es la domiciliación mediante Pago a la Carta, dado que técnicamente los recibos originales se agrupan en uno único agregado, en los cargos que realice el Ayuntamiento de Getxo, el contribuyente verá reflejado únicamente la modalidad de Pago a la Carta escogida (4 o 2 plazos) y el importe de cada fracción, pero no es posible mostrar el concepto tributario concreto y el importe individualizado de cada recibo. <p>Si desea un justificante de pago individualizado con la información completa de cada recibo puede solicitarlo en las oficinas del servicio de Recaudación del Ayuntamiento una vez el recibo haya sido abonado y haya transcurrido el plazo legal de devolución de 58 días.</p>
<p>1012020060510 Ordainagiri batzuk nahierako modalitatean izan ditzaket eta beste batzuk ez?</p>	<p>1012020060510 ¿Puedo tener algunos de mis recibos acogidos a Pago a la Carta y otros no?</p>
<p>Bai, posible da.</p> <p>Zergadunak ordainagiri guztiak edo batzuk ez helbideratzea aukera dezake; ordainagiri guztiak edo batzuk helbideratze arruntarekin helbideratzea aukera dezake; nahieran ordainagiri bat edo batzuk helbideratzea aukeratu dezake; aukera ezberdinak nahastea aukeratu dezake, eta ordainagiri batzuk helbideratu gabe izatea, beste batzuk helbideratze arruntarekin, eta beste batzuk nahierako ordainketarekin izatea ere aukera dezake.</p> <p>Ezin du hala ere, bere izenean nahierako ordainketa bat baino gehiago izan. Nahierako Ordainketa zergadun bakoitzarentzako bakarra izan behar da, eta bertan, zein ordainagiri, zein modalitate eta zein kontu zenbaki egongo diren aukeratu behar da.</p>	<p>Sí, si es posible.</p> <p>El contribuyente puede elegir no domiciliar todos o algunos de sus recibos; puede elegir domiciliar todos o algunos de sus recibos mediante domiciliación ordinaria; puede elegir domiciliar todos o algunos de sus recibos mediante Pago a la Carta; puede elegir mezclar diferentes opciones y tener algún recibo no domiciliado, otro/s domiciliado mediante domiciliación ordinaria y otro/s mediante Pago a la Carta.</p> <p>Lo que no puede hacer es tener más de un Pago a la Carta a su nombre. El Pago a la Carta es único para cada contribuyente debiendo elegir qué recibos incluye en él, qué modalidad y qué nº de cuenta aporta.</p>

Kontrol Kodea
Código de Control

GEF-REC-DOM-02-DN.509 //

<p>1012024053011 Nahierako ordainketa modalitatean ordainagiri bat dut, eta noizbehinka, kargatu dizkidaten zatiak ordaindu ditut. Gainerako zatiak kargatzeko kontu zenbakia ezeztatu egin da. Zer egin dezaket?</p>	<p>1012024053011 Tengo un recibo acogido a la modalidad de Pago a la Carta y he abonado puntualmente las fracciones que me han sido cargadas. El número de cuenta en el que se me cargarán las fracciones restantes ha sido cancelado. ¿Qué puedo hacer?</p>
<p>Hurrengo zatiak ordaintzeko kontu-zenbakia aldatzeko eskatu dezakezu, betiere baldin eta indarreko Nahierako Ordainketa modalitatean hurrengo epea mugaeguneratu baino hamar egun natural lehenago aurkezten baduzu eskaera.</p> <p>Beste aukera bat izango litzateke gainerako zatien ordainketa-gutunak eskatzea eta zure finantza-erakundearen ordaintzea; horretarako, aldizkako zergen helbideratzea kentzeko eskaera aurkeztu beharko duzu. Aipatutako azken aukera hautatzekotan, aintzat hartu beharko duzu egoera horretan zure ordainagiriak helbideratu gabeko ordainagiriekin parekatuko direla; beraz, ondorio berdinar aplikatuko zaizkiela. Horiek horrela, bertan behera utzi nahi baduzu zure Nahierako Ordainketa eta bidezko zatiak Ordainketa Gutunaren bidez ordaintzen badituzu helbideratu gabeko ordainagiriak borondatez ordaintzeko epean, eragiketa horrek ez du inolako errekargurik sortuko. Epe horretatik kanpo, epe exekutiboari dagozkion errekarguak aplikatuko dira.</p>	<p>Puede usted solicitar la modificación de la cuenta bancaria para las siguientes fracciones siempre y cuando la solicitud sea presentada con una antelación de al menos diez días naturales a la fecha de vencimiento del siguiente plazo de la modalidad de Pago a la Carta que tenga en vigor.</p> <p>Otra alternativa sería solicitar las cartas de pago de las fracciones restantes para abonarlas en su entidad financiera, presentando la solicitud de desdomiciliación de tributos periódicos. En caso de elegir esta última opción, debe tener en cuenta que esta situación asimila sus recibos a la de los no domiciliados, con sus mismas consecuencias. De este modo, si usted solicita deshacer su Pago a la Carta y abonar sus fracciones mediante Carta de Pago en el período habilitado para el pago voluntario de recibos no domiciliados, esta operación no implicará recargo alguno. Fuera de este período se le aplicarán los recargos propios del período ejecutivo.</p>
<p>1012024053012 Nahierako ordainketa modalitatean ordainagiri bat dut, eta noizbehinka, kargatu dizkidaten zatiak ordaindu ditut. Orain, hurrengo zatientzako kontu zenbakia aldatu nahi dut. Posible da hori egitea?</p>	<p>1012024053012 Tengo un recibo acogido a la modalidad de Pago a la Carta y he abonado puntualmente las fracciones que me han sido cargadas. Ahora quiero cambiar el número de cuenta para las siguientes fracciones ¿Es posible?</p>
<p>Bai, hori egitea posible da.</p> <p>Hurrengo zatiak ordaintzeko kontu-zenbakia aldatzeko eskatu dezakezu, betiere baldin eta indarreko Nahierako Ordainketa modalitatean hurrengo epea mugaeguneratu baino hamar egun natural lehenago aurkezten baduzu eskaera.</p>	<p>Sí, es posible.</p> <p>Puede usted solicitar la modificación de la cuenta bancaria para las siguientes fracciones siempre y cuando la solicitud sea presentada con una antelación de al menos diez días naturales a la fecha de vencimiento del siguiente plazo de la modalidad de Pago a la Carta que tenga en vigor.</p>
<p>1012024053013 Nahierako ordainketa modalitatean zenbait ordainagiri ditut, eta noizbehinka, kargatu dizkidaten zatiak ordaindu ditut. Nahierako ordainagiritako bat atera nahi dut, eta, ondoren, ordaindu. Posible da hori egitea?</p>	<p>1012024053013 Tengo varios recibos acogidos a la modalidad de Pago a la Carta y he abonado puntualmente las fracciones que me han sido cargadas. Quiero sacar uno de los recibos del Pago a la Carta y abonarlo. ¿Es posible?</p>
<p>Bai, hori egitea posible da.</p> <p>Aldizkako zergen helbideratzea kentzeko eskatu dezakezu, betiere baldin eta indarreko Nahierako Ordainketa modalitatean hurrengo epea mugaeguneratu baino hamar egun natural lehenago aurkezten baduzu eskaera eta ordainagiri horren ordainketa-gutuna eskuratu ahalko duzu zuzenean ordaintzeko eta Nahierako Ordainketa mantendu zerga horren gainerako ordainagiritarako.</p> <p>Aldizkako zerga jakin baten helbideratzea kentzeko eskatzen baduzu eta ordainketa-gutunaren bidez ordaintzen baduzu helbideratu gabeko ordainagiriak borondatez ordaintzeko epean, eragiketa horrek ez du inolako errekargurik sortuko. Epe horretatik kanpo, epe exekutiboari dagozkion errekarguak aplikatuko dira.</p>	<p>Sí, es posible.</p> <p>Puede usted solicitar la desdomiciliación de tributos periódicos con una antelación de al menos diez días naturales a la fecha de vencimiento del siguiente plazo de la modalidad de Pago a la Carta que tenga en vigor y obtener la carta de pago de ese recibo para abonarlo directamente y mantener el Pago a la Carta para el resto de los recibos incluidos en el mismo.</p> <p>Si usted solicita desdomiciliar un tributo periódico y abonarlo mediante carta de pago en el período habilitado para el pago voluntario de recibos no domiciliados, esta operación no implicará recargo alguno. Fuera de este período se le aplicarán el recargo propio del período ejecutivo.</p>
<p>1012020060514 Nahierako ordainketa modalitateari lotutako ordainagiri bat dut, eta lehenengo zatia itzuli egin didate, nire kontu korrontea ezeztatuta zegoelako. Hurrengo zatiak ordaintzeko, kontu korrontea zenbakia alda dezaket?</p>	<p>1012020060514 Tengo un recibo acogido a la modalidad de Pago a la Carta y la primera fracción ha sido devuelta porque mi cuenta corriente asociada estaba cancelada. ¿Puedo cambiar el nº de cuenta asociado para las siguientes fracciones?</p>
<p>Ez, ez da posible.</p> <p>Egutegi Fiskalean agertzen den bezala, Nahierako Ordainketari heltzeko eskaerak eta aldarazpenak ekitaldirako Egutegi Fiskalean ezarriko dagoen data baino lehen egin behar dira.</p> <p>Frakzio bat kobratzera pasatzeak eta hura ez ordaintzeak Nahierako Ordainketari dagozkion akordioa ez betetzea dakar zergadunaren aldetik. Ez betetzeak esan nahi du Nahierako Ordainketa modu automatikoan ezeztatuko dela hura hautematen den uanean bertan, eta geratzen den zor guztia betearazpen-bidera bidaliko dela.</p>	<p>No, no es posible.</p> <p>Tal y como figura en el Calendario Fiscal, las solicitudes para acogerse al Pago a la Carta y sus modificaciones deben realizarse antes de la fecha fijada en el Calendario Fiscal para el ejercicio.</p> <p>El haber pasado una fracción al cobro y no se ser atendida supone por parte del contribuyente un incumplimiento del acuerdo de Pago a la Carta. El incumplimiento supone la cancelación automática del Pago a la Carta en el momento en que se detecta y el envío de la totalidad de la deuda restante a ejecutiva.</p>

Kontrol Kodea
Código de Control

GEF-REC-DOM-02-DN.509 //

1012024053015	1012024053015
<p>Nahierako Ordainketaren modalitate bati lotutako ordainagiri bat dut: Modalitatea, lotutako kontu-zenbakia edo helbideratutako ordainketa horretan jasotako ordainagiriak aldatu ahal ditut zatiren bat kobratu aurretik?</p>	<p>Tengo un recibo acogido a alguna de las modalidades previstas de Pago a la Carta. ¿Puedo modificar la modalidad, el número de cuenta asociado, o los recibos incluidos en dicho pago domiciliado antes de que se pase al cobro alguna de las fracciones?</p>
<p>Kasuaren arabera.</p>	<p>Depende.</p>
<p>Baldin eta ekitaldirako Zerga Egutegia onartzeke badago, ez da amaituta eongo ekitaldi horretarako Nahierako Ordainketa eskatzeko edo aldarazteko epea.</p>	<p>Si el Calendario Fiscal para el ejercicio está pendiente de aprobación, no habrá finalizado el plazo para solicitar o modificar un Pago a la Carta para dicho ejercicio.</p>
<p>Hala egin ahal izango du, baldin eta eskaera Zerga Egutegian Nahierako Ordainketa bat eskatzeko edo aldarazteko ezarritako epea amaitu baino lehen aurkezten badu.</p>	<p>Podrá hacerlo si presenta su solicitud antes de la finalización del plazo fijado en el Calendario Fiscal para solicitar o modificar un Pago a la Carta.</p>
<p>Ezin izango duzu halakorik egin Nahierako Ordainketa eskatu edo aldatzeko epea amaitu bada. Nahierako Ordainketa eskatu edo aldatzeko muga-eguna adierazita dago ekitaldi bakoitzaren Zerga Egutegian. Hala ere, hurrengo zatiak ordaintzeko kontu-zenbakia aldatzeko eskatu dezakezu, betiere baldin eta indarreko Nahierako Ordainketa modalitatean hurrengo epea mugaeguneratu baino hamar egun natural lehenago aurkezten baduzu eskaera. Aukera hori honako kasu hauetarako izango da: bi epeko modalitatean, bigarren zatirako; lau epeko modalitatean, bigarren, hirugarren eta laugarren zatietarako, betiere baldin eta aurreko zatiak ordaindu badira.</p>	<p>No podrá hacerlo si ha finalizado el plazo para solicitar o modificar un Pago a la Carta. La fecha hasta la que se puede solicitar o modificar un Pago a la Carta está indicada en el Calendario Fiscal para el ejercicio. No obstante, podrá modificar la cuenta bancaria para las siguientes fracciones siempre y cuando la solicitud sea presentada con una antelación de al menos diez días naturales a la fecha de vencimiento del siguiente plazo de la modalidad de Pago a la Carta que tenga en vigor. Esta opción es posible para la segunda fracción de la modalidad de dos plazos y para la segunda, tercera y cuarta fracción para la modalidad de cuatro plazos, siempre y cuando haya abonado las fracciones anteriores.</p>
<p>Zerga Egutegian ekitaldirako adierazitako epea amaitutakoan, aldezkatu zerga jakin bati baja eman ahalko zaio Nahierako Ordainketan, ekitaldian ondorioak izateko moduan; horretarako, aldezkatu zergen helbideratzea kentzeko eskaera aurkeztu beharko da, indarreko Nahierako Ordainketa modalitatean hurrengo epea mugaeguneratu baino gutxienez hamar egun natural lehenago. Hala eta guztiz ere, ekitaldiko Zerga Egutegian adierazitako epea amaitutakoan, ezin izango zaio aldezkatu zergari alta eman Nahierako Ordainketan arribekide ekitaldian ondorioak izateko moduan.</p>	<p>Una vez finalizado el plazo indicado en el Calendario Fiscal para el ejercicio se podrá dar de baja un tributo periódico de un Pago a la Carta con efectos en el ejercicio, mediante la solicitud de la desdomiciliación de tributos periódicos siempre y cuando se realice con una antelación de al menos diez días naturales a la fecha de vencimiento del siguiente plazo de la modalidad de Pago a la Carta. No obstante, finalizado el plazo indicado en el Calendario Fiscal del ejercicio, no se podrá dar de alta un tributo periódico en un Pago a la Carta con efectos para el presente ejercicio.</p>
<p>Sailak prestatzen ditu ordainagiriaren fitxategiak, aintzat hartuta ekitaldiko Zerga Egutegian Nahierako Ordainketaren helbideratzea eskatu eta aldatzeko ezarritako datara arte zergadunak aurkeztutako informazioa. Zergadunak epe barruan eskatu ez baldin bazuen berak nahi zuen modalitatea edo sartu beharreko ordainagiriak, ezin izango da eskaera erantzun. Zergadunak Nahierako Ordainketako hurrengo muga-egunari dagokion epekan kanpo eskatzen badu Nahierako Ordainketari lotutako kontu-zenbakia aldatzeko, hurrengo muga-egunaren ondorengorako hartuko da kontuan eskaera, betiere baldin eta hurrengo zatia ordaintzen badu.</p>	<p>Los ficheros de recibos se preparan por el departamento teniendo en cuenta la información aportada por el contribuyente hasta la fecha fijada en el Calendario Fiscal del ejercicio para solicitar y modificar la domiciliación del Pago a la Carta. Si el contribuyente no solicitó en plazo su modalidad o los recibos incluidos, su solicitud no puede ser atendida. En caso de que el contribuyente solicite el cambio de su número de cuenta asociado al Pago a la Carta fuera del plazo otorgado para el siguiente vencimiento en el Pago a la Carta, su solicitud se tendrá en cuenta para el posterior vencimiento a la siguiente, siempre y cuando abone la fracción siguiente.</p>
<p>Ordainagiriaren gure datu-basean agertzen ziren datuekin kobratuko da, Zerga Egutegian Nahierako Ordainketa eskatzeko edo aldarazteko eskatu diren aldarazpenak sartu ondoren. Baldin eta zergadunak frakzioaren bati erantzuten ez badio, Nahierako Ordainketa modu automatikoki kitatzen da, detektatzen den unean bertan; horrenbestez, inguruabar hori gertatuz gero, geratzen den zor gutzitia betearazpen-bidera bidaltzen da, eta, hainbestez, interesdunari betearazpen-aldiko errekaruak eta interesak aplikatuko zaizkio.</p>	<p>El recibo se pasará al cobro con los datos que figuraba en nuestra Base de Datos una vez incorporadas las modificaciones solicitadas hasta la fecha indicada para solicitar o modificar el Pago a la Carta en el Calendario Fiscal. Si una fracción no es atendida por el contribuyente, supone la cancelación automática del Pago a la Carta en el momento en que se detecta y el envío de la totalidad de la deuda restante a ejecutiva y por lo tanto, se le aplicarán los recargos e intereses propios del periodo ejecutivo.</p>

Kontrol Kodea
Código de Control

GEF-REC-DOM-02-DN.509 //

<p>1012020060516 Helbideratu gabeko ordainagiriak ordaintzeko azken eguna da, eta finantza-erakundera joan naizenean, esan didate helbideratu gabeko ordainagiriak ordaintzeko ordutegia goizeko 11:00ak arte dela. Zer egin dezaket?</p>	<p>1012020060516 Es el último día de plazo de pago de recibos no domiciliados y al acudir a la entidad financiera colaboradora me indican que el horario de pago de recibos no domiciliados es hasta las 11:00 ¿Qué puedo hacer?</p>
<p>Finantza-erakundeek helbideratu gabeko ordainagiriak ordaintzeko ordutegi bat ezartzea beraien eskumen osoa da, eta Getxoko Udalak ez du erabaki horrekin zerikusirik. Edonola ere, kontuan hartu behar da ordutegi hori erakundeak aurrez aurreko erakusmahaian arreta jasotzeko eta ordainagiriak ordaintzeko dela, eta, beraz, ordainagiriak kutxazain automatikoan ordaindu daitezkeela; izan ere, barra-kodea izaten dute, edo bestela, Internet bidez ere ordaindu daitezke, Eusko Jaurlaritzako ordainketa pasabidean, hemen: www.euskadi.eus/mipago. Horrela, ez da ordutegi mugarik izango, eta ordainagiriak eguneko 24 orduetan zehar ordaindu ahal izango dira.</p>	<p>El establecimiento de una franja horaria para el pago de recibos no domiciliados por las entidades financieras es de su competencia exclusiva y se trata de una decisión ajena al Ayuntamiento de Getxo. En cualquier caso, debe tenerse en cuenta que dicha franja horaria es solo para la atención y abono de recibos en el mostrador presencial de la entidad, el recibo puede ser abonado en el cajero automático de la entidad puesto que incorpora un código de barras que lo permite o por internet a través de la pasarela de pagos del Gobierno Vasco www.euskadi.eus/mipago. Ambas opciones no están sujetas a limitación horaria permitiendo el abono del recibo durante las 24 horas del día.</p>
<p>1012020060517 Ordainagiriak nire kontuan kargatu dituzten egunean, nire finantza-erakundeak ordainagiria itzuli du akats baten ondorioz, eta orain, nire ordainagiriak errekarua du. Errekargu betearazlea ordaindu behar dut?</p>	<p>1012020060517 El día en el que los recibos han sido cargados en cuenta, mi entidad financiera ha devuelto el recibo por error y ahora mi recibo se encuentra con recargo. ¿Tengo que abonar el recargo ejecutivo?</p>
<p>Bai, errekarua ordaindu behar duzu. Ordainagiriak helbideratzea zergadunek Getxoko Udalari egiten dioten agindua da, Udalak adierazitako kontuan ordainagiriaren zenbatekoa kobratzeko. Agindu hori dela-eta, zergadunak bankuko kontu hori eraginkor mantendu beharra du, eta nahiko saldo izan behar du Udalak helbideratutako ordainagiriak kobratzen dituen egunetan ordainagiriak ordaindu ahal izateko. Data horiek ekitaldi bakoitzeko Zerga Egutegian onetsita daude, eta Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira. Ordainagiriak Zerga Egutegian jasotako datetan jartzen badira kobratzeko prest eta zergadunak ez badie ordainagiri horiei erantzuten eta itzulketa eragiten badu, ordainagiria betearazpen-aldian kobratzeke egongo da, eta, ondorioz, aldi horretako errekaruak eta interesak aplikatuko dira. Getxoko Udalak bere jardunaren ondorioz kobrantza prozeduran izandako akatsak baino ez ditu hartuko bere gain, baina ez zergadunak edo finantza-erakundeak sortutakoak.</p>	<p>Sí, tiene que abonar el recargo. La domiciliación de recibos supone un mandato que el contribuyente realiza al Ayuntamiento de Getxo para que éste proceda a cargar en la cuenta indicada el importe de los recibos deseados. Este mandato supone para el contribuyente la obligación de mantener operativa la citada cuenta bancaria y con saldo suficiente para poder hacer frente a los citados recibos en las fechas en las que el Ayuntamiento procede a cargar los recibos domiciliados. Las citadas fechas se encuentran aprobadas en el Calendario Fiscal de cada ejercicio y son publicadas en la página web del Ayuntamiento así como en Boletín Oficial de Bizkaia. En el caso de que los recibos sean puestos al cobro en las fechas recogidas en el Calendario Fiscal y éstos no sean atendidos por el contribuyente provocando su devolución, el recibo se encontrará pendiente de cobro en periodo ejecutivo siendo por tanto aplicables los recargos e intereses propios de dicho período. El Ayuntamiento de Getxo únicamente asumirá los errores habidos en el proceso de cobro que sean consecuencia de su procedimiento, no de los causados por el contribuyente o su entidad financiera.</p>
<p>1012020060518 Getxoko Udalak egiten dizkidan karguak argi identifikatzeko zailtasunak ditut. Ezin dut informazio gehiago jaso?</p>	<p>1012020060518 Tengo dificultades para identificar claramente los cargos que me realiza el Ayuntamiento de Getxo ¿No se puede ampliar la información que me proporcionan?</p>
<p>Ez, ez da posible. Nahierako Ordainketako ordainagiriak izanez gero, identifikatzea zaila da Nahierako Ordainketaren mekanika dela-eta, eta horren arrazoia, aurreko erantzunean azaldu da. Gainera, SEPA banku-arauiak helbideratutako zordunketak identifikatzeko 140 karaktere soilik sartzeko aukera ematen du, eta erakutsi beharreko informazioa mugatu egiten da. Ordainagiri bakoitzaren informazio guztia biltzen duen ordainketa-ziurtagiria nahi izanez gero, Udalaren Diru-bilketa Zerbitzuan eskatu ahal izango da, ordainagiria ordaindu ondoren eta itzulketa egiteko legez ezarritako 58 eguneko epea igaro ondoren.</p>	<p>No, no es posible. En el caso de que se trate de recibos acogidos a la opción de Pago a la Carta, la dificultad en la identificación deviene de la propia mecánica del Pago a la Carta y cuya razón se explica en la respuesta anterior. Además, la normativa bancaria SEPA permite introducir únicamente 140 caracteres para la identificación de los adeudos domiciliados, limitándose la información a mostrar. Si desea un justificante de pago individualizado con la información completa de cada recibo puede solicitarlo en las oficinas del servicio de Recaudación del Ayuntamiento una vez el recibo haya sido abonado y haya transcurrido el plazo legal de devolución de 58 días.</p>

Kontrol Kodea
Código de Control

GEF-REC-DOM-02-DN.509 //

1012020060519 Nola lor dezaket ordainketa-ziurtagiria?	1012020060519 ¿Cómo puedo obtener un justificante de pago de mis recibos?
<p>Zergadunek zergen ordainketa-egiaztagiriak jasotzea eta horretarako epea horiek aukeratutako ordainketa modalitatearen eta aplikatu beharreko legezko arautegiaren menpe daude, hain zuzen ere Ordainketa Zerbitzuei buruzko azaroaren 13ko 16/2009 Legearen estatu araubidearen menpe, eta hala, hori ezin du Getxoko Udalak hautaz aplikatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> Helbideratu gabeko ordainketa modalitatean, ordainagiria etxera bidalitzeko inprimakia da, zergadunek finantza-erakundearen ordainketa egiteko erabiltzen duen bera. Egiaztagiri hori modu mekanikoan balidatu behar du erakundeak, eta horregatik da ordainketa-egiaztagiria. <p>Ordainagiria Internet bidez ordaintzea aukeratu baduzu, ez duzu izango finantza-erakundearen balioztatzea, baina ordainketa egiten duzun webgunean zuzenean eskuratu ahal izango duzu ziurtagiri bat. Kontuan hartuz modalitate horretan ezin dela egin ordainagiriaren itzulketarik, zergadunek ordainketa-ziurtagiria jasotzen dute ordainketa egiten duten unean.</p> <ul style="list-style-type: none"> Helbideratutako ordainketa arruntaren edo nahierako ordainketa modalitatean zergadunek bi ordainketa egiaztagiri izaten dituzte. Lehenengoa finantza-erakundeak berak ematen duena da, eta bertan egiaztatzen da aipatutako egunean bere kontu korrantean zenbateko zehatza kargatu dela. Ziurtagiri hori automatikoki lortzen dute bezeroek, finantza-erakundeari eskatuz. Bigarren ordainketa-ziurtagiria, helbideratutako modalitatean zergadunek lortu ahal dutena, Getxoko Udalak berak ematen du. Ziurtagiri horiek egiteko epea Ordainketa Zerbitzuen azaroaren 13ko 16/2009 Legearen 34. artikuluan ezarritako itzulketa epeen menpe dago, eta hori zordunketa egunetik 8 asteko epea da. Hau da, kontuan hartuz modalitate horretan zergadunek zordunketatik 8 asteko epean kontura kargatutako ordainagiria itzultzeko aukera dutela, Getxoko Udalak epe hori igaro arte ezin du inolako ordainketa-ziurtagirik eman, ordainketa ez baita irmoa egun horretara arte. <p>DBEO eta DPBLO direla eta, zerga-informazioa ordainagiriaren titularrari edo egiaztatutako baimena duenari baino ez zaio emango. Baita ondasunen titularkideei ere.</p>	<p>La obtención por el contribuyente de los oportunos justificantes de pago de sus tributos, y el plazo para ello, depende de la modalidad de pago escogida por él y por la normativa legal de aplicación, Ley 16/2009, de 13 de noviembre, de Servicios de Pago, normativa estatal que no puede ser aplicada de forma discrecional por el Ayuntamiento de Getxo.</p> <ul style="list-style-type: none"> En la modalidad de pago no domiciliado, el justificante de pago es el propio impreso remitido al domicilio con el que el contribuyente acude a la entidad financiera escogida para el pago. Dicho recibo debe ser validado mecánicamente por la entidad y actúa por ello como justificante de pago. <p>Si ha optado por pagar el recibo a través de internet, no tendrá la validación mecánica de su entidad financiera pero sí que podrá obtener un justificante directamente de la web en la que realiza el pago. Dado que en esta modalidad no existe la posibilidad de devolución del recibo, el contribuyente obtiene su justificante de pago en el mismo momento del pago.</p> <ul style="list-style-type: none"> En la modalidad de pago domiciliado ordinaria o Pago a la Carta el contribuyente dispone de dos justificantes de pago. Uno emitido por su propia entidad financiera en el que se acredita que en la fecha señalada se ha procedido a cargar en su cuenta corriente un importe determinado. Este justificante se obtiene de forma automática por el cliente solicitándolo a su entidad financiera. El segundo de los justificantes de pago que puede obtener el contribuyente en la modalidad de pago domiciliada lo emite el propio Ayuntamiento de Getxo. El plazo para la confección de estos justificantes está totalmente condicionado por el plazo de devolución establecido en el artículo 34 de la Ley 16/2009, de 13 de noviembre, de Servicios de Pago, y que ese fija en 8 semanas desde el adeudo. Es decir, dado que en esta modalidad el contribuyente tiene la posibilidad de devolver el recibo que le ha sido cargado en cuenta durante un plazo de 8 semanas desde el adeudo, el Ayuntamiento de Getxo no puede hasta que haya transcurrido el citado plazo emitir ningún justificante de pago puesto que éste no es firme hasta la citada fecha. <p>Debido al RGPD y la LOPDGGD, la información de carácter tributario únicamente se proporcionará al titular del recibo o persona debidamente autorizada y acreditada. También a los cotitulares de los bienes.</p>